Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6242

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 16koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-ordezkariei zenbait gaitarako eskumenaren jarduera eskuordetzeko dena.

2009ko Gabonetako kanpainan merkataritza eta ostalaritza arloak indarberritzeko eta lehiakortasuna sustatzeko pizgarrietarako dei egiten duen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko azaroaren 3ko Aginduak Merkataritza eta Turismoko sailburuordeari ematen dio programa horren araberako laguntza-eskabideak ebazteko eskumena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko azaroaren 3ko Aginduaren bitartez zenbait eskumen ematen zaizkio Merkataritza eta Turismoko sailburuordeari. Administrazio-izapideak eraginkortasun handiagoz eta azkarrago egiteko, beharrezko ikusten da eskumen horiek eskuordetzea, hala aholkatzen baitute teknika- eta lurralde-arloko arrazoiek.

Era horretan, administrazio-jarduera artezten duten ekonomia-, azkartasun- eta eraginkortasun-printzipioekin egokiago ezkontzen den laguntza-programaren kudeaketa erdietsi nahi da.

Ondorioz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko azaroaren 3ko Aginduaren bitartez Merkataritza eta Turismoko sailburuordeari esleitutako eskumena, hau da, laguntza-eskabideak ebaztekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-ordezkariei eskuordetzea, bakoitzari bere eskumenpeko lurraldean. Agindu horren bitartez, 2009ko Gabonetako kanpainan merkataritza eta ostalaritza arloak indarberritzeko eta lehiakortasuna sustatzeko pizgarrietarako dei egiten da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

6242

RESOLUCIÓN de 16 de noviembre de 2009, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, por la que se delega en los Delegados Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo el ejercicio de la competencia sobre determinadas materias.

La Orden de 3 de noviembre de 2009, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se convocan incentivos a la competitividad y reactivación de los sectores del comercio y la hostelería en la campaña de navidad 2009, atribuye a la Viceconsejera de Comercio y Turismo la competencia para resolver las solicitudes de ayudas que al amparo del programa se presenten.

Con la finalidad de agilizar y lograr una mayor eficacia en la tramitación administrativa y así aconsejarlo razones de índole técnica y territorial, resulta necesaria llevar a cabo una delegación en el ejercicio de las competencias que la Orden de 3 de noviembre de 2009, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, atribuye a la Viceconsejera de Comercio y Turismo.

De este modo se pretende lograr una gestión del programa de ayudas más acorde con los principios de economía, celeridad y eficacia que gobiernan la actuación administrativa.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

RESUELVO:

Primero.– Delegar en los Delegados Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo el ejercicio, en sus respectivos ámbitos territoriales, de la competencia para resolver las solicitudes de ayudas atribuida a la Viceconsejera de Comercio y Turismo en la Orden de 3 de noviembre de 2009, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se convocan incentivos a la competitividad y reactivación de los sectores del comercio y la hostelería en la campaña de navidad 2009,

Bigarrena.– Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak, organo eskudun gisa, aipagai dugun arloari dagokionez ezarritako jarraibide eta irizpideen aurka egin gabe egiten da eskuordetze hau.

Hirugarrena.– Eskuordetze honen bidez emandako ebazpen guztietan aipatuko da egoera hori, alegia, eskuordetzearen bidez eman dela ebazpena; gainera, eskuordetzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian noiz argitaratu den ere jasoko da. Horrela, Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak berak emandako ebazpentzat joko dira.

Laugarrena.– Aipatu ebazpenen aurka aurkeztutako administrazio-errekurtsoez arduratzea Industria, Berrikukntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari dagokio, halaxe agintzen baita 2009ko Gabonetako kanpainan merkataritza eta ostalaritza arloak indarberritzeko eta lehiakortasuna sustatzeko pizgarrietarako dei egiten duen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko azaroaren 3ko Aginduaren 9.4 artikuluan.

Bosgarrena.– Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak edozein unetan erreboka dezake eskuordetze hau, eta, era berean, edozein prozedurari buruzko ardura beregana dezake.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 16a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.

Segundo.– La presente Delegación se entiende sin perjuicio de las directrices y criterios que sobre la materia establezca la Viceconsejera de Comercio y Turismo como Órgano competente.

Tercero.– Las resoluciones que se dicten en virtud de la presente Delegación deberán indicar dicha circunstancia, mediante la mención de la misma y de su fecha de publicación en el «Boletín Oficial del País Vasco» y se considerarán dictadas por la Viceconsejera de Comercio y Turismo.

Cuarto.– El conocimiento de los recursos administrativos que, en su caso, procedan contra dichas resoluciones corresponderá al Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, conforme establece el artículo 9.4 de la Orden de 3 de noviembre de 2009, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se convocan incentivos a la competitividad y reactivación de los sectores del comercio y la hostelería en la campaña de navidad 2009.

Quinto.– En cualquier momento, la Viceconsejera de Comercio y Turismo podrá revocar la presente Delegación, así como avocar el conocimiento de cualquier expediente.

Sexto.– La presente Resolución surtirá efecto a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de noviembre de 2009.

La Viceconsejera de Comercio y Turismo,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.